



## Zurriolako Ataria

54. alea

2019-03-15

### 19/20 ikasturteko antolaketaz Batzar Informatiboa

Itxi beharreko hitzarmenak aste honetan lotuta, datozen bi ikasturteetan ikastolaren antolakuntza zein izango den azaltzeko Batzar Informatiboa burutuko da **apirilaren 10**ean Hurrin. Dagoeneko aurrera dezakegu Josefinen eraikinean LH1 eta LH2 kokatuko direla eta Hurrako eraikinean LHko gainontzeko mailak.



### Inauterietako jantzien bilketa

Honez gero inauteriak pasa ditugu, ikasle, irakasle, eta familak elkarrekin giro ezin hobean ospatuta. Hurrengo urteetan ere hala izan dadin eta familientzat jantzien antolaketak suposatzen duen lana arintzeko asmoz, proposamen batekin gatorbizue: ([irakurri +](#))



### HH3koak Ekogunean

Astelehenean, 3 urteko laguntxoak Ekogunera joan ziren. Bertako ibilalditxoan, oiloak eta antzarak gertutik ezagutzeko aukera izan zuten. Eguraldi epela aprobetxatuz, kanpoan bazkari goxoa dastatu eta ondoren jolas parkean primeran ibili ziren, egun paregabea elkarrekin igaroaz!



### DBH irteerak

Atzo DBHko ikasleek zenbait txango egin zituzten. DBH1ekoak Urretxun izan ziren, [DBH2koak Azpeitian](#), [DBH3koak Gasteizen](#) eta [DBH4koak](#), berriz, [Iruñean](#).



Hementxe duzue informatika musikaleko ikasleek sortu duten "50 urtez" abestiaren [bideoa](#). Bertan, abestu eta musika tresnarekin jotzeko aukera izango duzue, bakarka, bikoteka, familian, ...

## aisialdia

### Ikastolen Elkarteko udako aisialdi eskaintza

Urtero moduan EHIko Aisialdi Taldeak udako eskaintza plazaratu du. Hauxe dituzue "IKASTOLA" aldizkariarekin batera etxean jaso duzuen [esku-oria](#) eta baita informazioa zabalitzen duen [zikularra](#) ere.

### OHARRAK / AGENDA:

- **LH4:** Uliako ur biltegiara irteera. Goiz pasa. Martxoak 21.
- **DBH1:** "Genero indarkeriaren prebentzioa". Formakuntza. Martxoak 20.
- **DBH4:** "Sexu heziketa eta indarkeria matxistaren prebentzioa". Formakuntza. Martxoak 20.
- **DBH4:** Batxilergo orientazioa. Informazio saioa. Martxoak 21. 18:00. Hurrako aretoan.
- **DBH-BATX:** 2. ebaluazioko noten buletinak [Alexian](#) ikusgai.
- **Ikastolaren festa 2019:** Data aldaketa: Maiatzak 4.
- **Zurriola Musika eta Dantza Eskola:** [Txostena](#).
- **Eskola Kirola:** Asteburu honetan ez dago jardunaldirik.
- **Zurrimendi:** Martxo amaierako [irteera](#).
- **Errigora:** Udaberriko [kanpaina](#). Eskaera [orria](#) (editagarria).
- **Aisialdiko jarduerak haurrentzat:** [Martxoak 15-19](#).

